



## 1. NOLA SUSTATU HERRITARREN PARTE HARTZEA UDALETIK?



### HELBURUA DA...

Udaleko langile eta ordezkari politikoekin udalerriko herritarren partaidetza sustatzeko eta partaidetza hori udalaren funtzionamenduarekin integratzeko nozioak jasotzea eta udala horretara egokitzeko eman beharreko urratsetan hausnartzea.



### ZEHAZKI BILATUKO DUGU...

- Herritarren partaidetzaren inguruko ulermen desberdinak partekatu, eta ikuspegi bateratu bat sortzea.
- Udalean eta herrian partaidetzaren inguruko ibilbidearen irakurketa autokritikoa egitea.
- Udalaren eta herriaren partaidetza-momentuaz jabetzea.
- Udalera eta herrira hobekien egokituko den etorkizun hurbileko partaidetza-ereduaz hausnartzea.

**Herritarrek udal politiketan parte hartu ahal izateko bideak eskaini nahi dituzue? Udalean eta udaletik egin beharrekoa egituratu nahi duzue? Hau da zuen tailerra.**

